

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Kruz Mendizabal Etxeberria

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteria-Oreretako Biteri klean jaio zen. Ama, Ramona Etxeberria, herriko Añabitarte baserrikoa zuen eta aita berriz, Pedro Mendizabal, Beizaman jaio baina Errenteriara etorria. Hamabi senidetan zaharrena zen Mari Kruz. Mojekin ibili zen eskolan,"Gurutzeko Alabetako"mojekin. Biteri kaletik Papeleraren ondoko etxe berrietara joan ziren bizitzera eta bederatzi urte arte han bizi izan zen. Aita kontratista zen eta etxeak eraikitzen zituen, berak eraikitako etxe ugari dago Errenteria-Oreretan, ez etxeak bakarrik bestelako eraikinak ere egin zituen, zubiak besteak beste. Horietako batzuk Agustinak auzoko lehenengo etxeak izan ziren, etxe txiki haietako batera joan zen bizitzera sendi osoa. Etxe alboan zegoen bulegoa eta Mari Kruz han aritzen zen paper-kontuekin aitari laguntzen. Hamazazpi urterekin ezagutu zuen bere senarra izango zena, Armando Lacombe, eta hogeita lau urte zituenean ezkondu ziren. Sei seme-alaba izan zituzten eta Mari Kruzek neskamea izaten zuen etxeko lanetan laguntzeko. Agustinetan bizi izan dira.

Zintak

ERR-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-03-16
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Aita etxegina zen; hark egindako lanak

- **Erref:** ERR-009/005
- **Iraupena:** 0:05:04. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:08:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Aita kontratista zen, etxegina. Egin zituen eraikinak. Non bizi ziren. 12 senide ziren, bera zaharrena. Donostian ere egin zituen etxeak eta zubi bat; Casinoa eraldatu zuen. Ehun langile zituen bere kargu. Tunelak.

2. Aitaren bulegoan lanean

- **Erref:** ERR-009/007
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:08:27. **Bukatu:** 00:11:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Aitak ordu asko pasatzen zituen lanean. Orduan kotxerik ez zuten, eta ez zen gautu arte bueltatzen. Semeak gidabaimena atera zuen gero. Diruzaina Julio Gaztaninza zen. Berak ere aitaren bulegoan egiten zuen lana. Alamedan, aitak egindako etxea. Ezkonberritan han bizi zen. Bulegoko lanak. Baztarrikak planoak egiten zituen.

3. Biterin jaio, etxe berrietan bizi

- **Erref:** ERR-009/008
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:11:46. **Bukatu:** 00:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Biteri kalean jaio zen, zapata dendaren gainean. Hortik etxe berrietara pasatu zen; bederatzi urte arte. Alameda nolakoa zen orduan. Tranbia. Bankuak. Kioskoa. Umetan dantzan, igandetan. Nobioa ere han ezagutu zuen gerora.

4. Batzokian bueltaka umetan

- **Erref:** ERR-009/009
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:14:38. **Bukatu:** 00:17:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Batzokia bere aitak egin zuen. Umetan asko joaten ziren, gehienetan antzerkia ikustera. Euskaraz ziren. Dantzak ere izaten ziren, eta kantatu egiten zuten. Abesti bat kantatzen du.</p>

Transkripzioa

- Batzokiya beti ezagutu zenun zuk hor?
- Batzokiya nere aittak in zun, e!
- A! Zure aitak.
- Bai, nere aittak in zun hua´re, bai. Nere bizi guziyan ezagutu dut, ta barrenan´e asko ibili nitzan umetan. Hoixe baietz.
- Umetan?
- Bai, klaro.
- Ze juten ziñan harea, jolastea ta hola?
- Gehienetan este... teatrua ta gauz hoik itten zian hor asko, ta hoik ikustea-ta juten giñan. Zeatik urruti xamar hemen bizi ezkeo, goian bizi giñan, ta amak ez zigun uzten kalea juten, Erreteriko kalea juten.
- Eta ze juten ziñaten, anai-arrebak Batzokira?
- Bai.
- Elkarrekin?
- Bai, elkarrekin juten giñan.
- Ta zenek eramaten zizuen, aitak o amak o...?
- Guri?
- Bai.
- Bueno, beatzi urte banittun orduan eta ibilli ere bakarrik ibiltzen giñan, biñon jeneralian izaten zan itxian norbaitte, lehengusua edo hola, umiak kontutzeko-ta eukitzen zuna nere amak. Eta harrekin juten giñan.
- [...]
- Bai, harrekin juten giñan.
- Han esan dezu anatzerkia-ta ikusten zenutela.
- Hoixe, bai, bai.
- Nolako antzerkiak ziran haiek?
- Ui! Jesus! Ez naiz oain gogoratzen asko.
- Euskeraz izaten zian?
- Bai, bai, hoixe baietz! [Hua] dena euskalduna zan. Hoixe baietz! Bai, bai.
- Eta jende asko juten zan ikustea?
- Bai, bai.
- Dantzak-eta hola ere izaten zian?
- Baita ere, baita ere. Eta kanta...
- Kantak.
- Horko kantatzen zian kantak ere badakizkit, batzuk behintzat.
- Zein zian? Zein zian?
- Zein zian? Adibidez, bat kantatuko dizut:

“Gaztetasuna eta garbitasuna
—Ai! Oain ez naiz gogoratuko! Hara!—
duten laguntza zorientasuna
zuzenak diralako gure buruko asmoak
arpegian barruan [...] berriz bihotz alaia
ipintzen digu Jainkoak.

Tralara lara lara ra..."

Hoixe. Hoi adibidez. Hasi ta bukatu badakit.

5. "Etxe poxpola" abestia

- **Erref:** ERR-009/011
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>"Etxe poxpola" abestia kantatzen du. Batzokian ikasitakoa, umetan.</p>

Transkripzioa

- Adibidez bestea:

"Han urrun etxe poxpola
hola, hola.
Tximinitik gora, kea dariola,
hola, hola.
Gaintxuan arbola, zelai erdian.
Erreka pospola itxe atarian.
Tralara lalara la la.
Dana txiki-txiki-txikiya, hola.

Badator etxekoandria,
hola, hola.
Begitxoak ñir-ñir,
ahoan irria,
hola, hola.
Sutan danboliña gaztaiña erretzen..."

Ez naiz gogoratzen.

- "Sutan danboliña gaztaiña erretzen".
- Baiño lehenbizi... beste... "etxia"...

"...babak egosten.
Sutan danboliña gaztaiña erretzen.
Tralara lalara la la.
lara lara lara txikiya, hola".

6. Batzokiko giroa: antzerkia, pospolinak

- **Erref:** ERR-009/013
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:19:17. **Bukatu:** 00:22:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Beste abesti bat kantatzen du, batzokian ikasia umetan, pospolinei entzunda. "Trinka-trinketa". Antzerkia egiten: Olaskoa, Idiazabal... Malen Loinaz, Eli Olaziregi... pospolinak. Taberna eta frontoia.</p>

7. Gerra hasi zenean, Beizamara

- **Erref:** ERR-009/014
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:22:21. **Bukatu:** 00:25:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra etorri zenean, Beizamara egin zuten alde. Bi hilabetera bueltatu ziren. Añabitartera joan ziren, baserrira; eta handik, zapi zuriarekin, oinez Perurenaraino. Donostian lau egun, bonbak botatzen hasi zirelako; gero Beizamara kotxez.

8. Aita lanik gabe, bueltan

- **Erref:** ERR-009/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:25:48. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Batzokiko giroa desagertu egin zen. Dena kendu zuten. Aita lan gabe; kamioiak kendu zizkieten. Arazoak izan zituen. Bederatzi seme-alabak aurrera ateratzeko, gogor egin zuen lana.

9. Eskolan Gurutzeko Alaben ikastetxean

- **Erref:** ERR-009/016
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:30:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Eskolan Gurutzeko Alaben ikastetxean ibili zen. Gabierrotan zegoen. Goiburu eta Alzola etxegileak. Mojen oroitzapen ona du. Kontabilitatea ikasi zuen. Mutilak zazpi urte arte. Eskulanak, arratsaldean: josten.

10. Euskaraz ikasten, gerra aurretik

- **Erref:** ERR-009/018
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:30:46. **Bukatu:** 00:34:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Frantsesa ere ikasi zuen pixka bat mojetan. 16 urte arte. Amak denda jarri zuen, eta ahizpa bat han; beste bat moja. Gerra aurretik euskara ematen zuten, partikular. Xabiertxo, Lutelestia... liburuak. Etxean beti euskaraz. Anai-arrebek erdararako joera. Euskaltzaleasuna.</p>

11. Familian bertsozaleak

- **Erref:** ERR-009/019
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:34:06. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Kantatzeko ohitura zuten etxean. Bertsozalea da bera. Gurasoek bertso zaharrak kantatzen zituzten. Uda Añabitarten pasatzen zuen, eta han ere bertsoan. Bertso zahar bat kantatzen du, amari ikasia. Ama ez zen asko ateratzen.

12. Etxeko lanak

- **Erref:** ERR-009/020
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:39:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Hiru zaharrenak neskak izanik, amari laguntzea tokatu zitzaien denei.

Oiartzungo lehengusu bat eraman zuten etxera, berak 9 urte zituela, neskame. Argizaria ematen zuten lurrean. Etxeko lanak. Labaderoa zuten bodegan. Ura eta argia bazituzten etxean.

13. Gurasoekin lanean; baratzea eta txerri-hiltzea

- **Erref:** ERR-009/021
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:39:28. **Bukatu:** 00:42:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Aitarekin hasi zen lanean, eta amarekin josten ere aritzen zen. Aurrekontuak egiten zituen, fakturak. Baratzea ere bazuten; osaba batek zeraman. Oiloak zituzten. Txerria erosi egiten zuten, hiltzeko; Joxe Unzurrunzaga harakina joaten zen. Odolkiak. Urdaiazpikoa.</p>

14. Alamedan dantza eta Biterin paseatu

- **Erref:** ERR-009/022
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:42:41. **Bukatu:** 00:45:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Erreterian musika igandero, Alamedan. Mutilekin dantza egitea bekatua zen. Arratsaldero bezperak, goizean meza nagusia. Mojak. Biteri kalean paseatu, eta mutilak ezagutu.

15. Senarra nola ezagutu zuen

- **Erref:** ERR-009/023
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:45:28. **Bukatu:** 00:47:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Biteri kalean ezagutu zuen nobioa 17 urterekin; 24rekin ezkondu. Zinema aretoak. Nobioak Carbones de Tenerife S.A.n egiten zuen lana. Ikatza handik ekartzen zuten; hura joaten zen kobratzera.

16. Ezkontza, 24 urterekin; arreo, bidaia

- **Erref:** ERR-009/024
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Erreterian ezkondu ziren. Soineko beltza, Donostian egina. Arreo etxean prestatzen zuten, Erreterian lihozko ehuna erosita. Bordatu. Bazkaria Panier jatetxean. Bidaia: Iruñea-Bartzelona-Palma de Mallorca. Lehengusuaren etxera.

17. Agustinak auzoa nolako zen

- **Erref:** ERR-009/026
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:53:30. **Bukatu:** 00:55:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Agustinak auzoa nolako zen lehen. Pinudiak zeuden, zelai handiak. Baserriak: Etxeberri, Lertxundieta, Kotxuanía eta Gaztelutxo. Gurdiak eta astoak.

18. Garai bateko plaza

- **Erref:** ERR-009/027
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:55:09. **Bukatu:** 00:59:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Baserritarrak eta garai bateko plaza. Postuak. Harategia, arrandegia. Arrain aukera gehiago orain. Arrain motak. Antxoa saltzen ibiltzen zen "arraiketaria". Auzoko etxe bakarretakoa zen beraiena.

19. Enkarguz egindako etxeak

- **Erref:** ERR-009/028
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:59:03. **Bukatu:** 01:00:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Garai bateko etxeak. Aitak enkarguz egiten zituen etxeak. Merkeen eskaintzen zuenak irabazten zuen lehia. Saltzeko moda etorri zen; aurretik, alokairuan. Iriarte eta Loidi.

20. Sukaldea eta etxeko otorduak

- **Erref:** ERR-009/029
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 01:00:16. **Bukatu:** 01:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Amarekin ikasi zuen sukaldean. Ikusitakotik. Ondo moldatu da. Ama bera ikasten ibili zen, sukaldean eta josten. Zer jaten zuten etxean: potajea egunero, barazkiak. Igandetan salda. Haragi egosia astelehenetan. Postrerik ez. Sagarra. Tolosako feriatik ekartzen zuten babarruna, sagarrak, gazta... Aitak kotxea zuen. Seme-alabei etxe bana eman zien.</p>

21. Egun berezietako otorduak; janari denda

- **Erref:** ERR-009/030
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:04:32. **Bukatu:** 01:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Egun berezietan, oilaskoa. Etxean zuten oilategia. Gabonetako afaria: aza-olioak eta bisigua. Aitari ez zitzaion aldatzea gustatzen. Bisigua errazago jartzen zen orain baino. Janari denda zuten. Ahizpak egiten zuen lana han.</p>

22. Etorkinak eta lantegiak

- **Erref:** ERR-009/031
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:07:17. **Bukatu:** 01:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

<p>Erreterria asko aldatu da. Lehen elkar ezagutzen zuten. Orain ez. Auzo berriak. Etorkinak. Trintxerperi Galizia deitzen zioten. Erreterriako lantegiak aipatzen ditu. Gailera-lantegiak.</p>

23. Olibet galletak; emakumeak lantegietan

- **Erref:** ERR-009/033
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:09:57. **Bukatu:** 01:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Inguruetatik Erreterriara lanera. Olibet galletak bertara joanda erosten zituzten. Emakume asko zebilen han lanean; etxe aurretik pasatzen ziren. Emakumeak beti egin du lana. Esmalteetan, ehungintzan...</p>

24. Inmigrazioa, gauza arrunta

- **Erref:** ERR-009/034
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:12:50. **Bukatu:** 01:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Etorkinen etorrera normalizat zuten. Kanttale janari denda gainean Extremadurako batzuk bizi ziren. Etxea alokairuan hartzen zuten, bertakoek bezalaxe. Beraiek ere maizterrak ziren Alamedan, agustinetara joan aurretik.

25. Erreterriako etxegileak

- **Erref:** ERR-009/036
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:15:02. **Bukatu:** 01:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Galtzaraborda eta Beraun auzoetako etxeak ez zituen aitzak egin; beste era batekoak egiten zituen. "Frantsesa" deitzen zioten etxegilea. Ez du gogoan lehia gogorrik etxegileen artean. Anaiak-eta jarraitu zuten eraikuntzan.

26. Sei seme-alabetako lau etxean jaioak

- **Erref:** ERR-009/037
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:17:15. **Bukatu:** 01:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Ezkondutuen ondoren lanean jarraitu zuen pixka batean. Seme-alaba gehienak etxean izan zituen berak. Bi, ama-etxean. Medikua etxera joaten zen. Pilar ahizpak laguntzen zion, San Antonio klinikan erizain egona baitzen. Beraiek 12 senide ziren, denak etxean jaioak.

27. Haurrak eduki eta oilo salda

- **Erref:** ERR-009/038
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 01:20:36. **Bukatu:** 01:24:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Etxean haurra izateko prestaketak. Ur beroa. Epiduralik ez. Egun batzuk ohean. Laguntzailea zuen etxean, neskamea. Oilo salda hartzeko ohitura. Bularra ematea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com